

Pinterest, arrakasta betean

Gizarte-sareen belaunaldi berri bat ari da nagusitzen, Sarean aurkitutako irudiak elkarrekin partekatu eta iruzkinak egiteko erabiltzen direnak

Azken hilabeteetan, zabalkunde eta arrakasta handia lortu dute beste web-orri batzuetan argitaratu diren irudiak partekatzeko asmoz sortu diren gizarte-sareek, eta horien buruan, Pinterest zerbitzua ageri da (<http://pinterest.com/>). Orrialde horiek oso bisualak izaten dira, ikusteko irudiak ematen dute irudiak, bideoak edo produktuak hautatu, erabiltzailearen beraren orrian jarri eta iruzkinak egiteko. Nolabait esateko, irudiak azkar argitaratzeko plataformen hurrengo urrats gisa heldu dira (Tumblr eta antzekoen segida gisa), edo, nahi bada, Facebook erabat bisualak dira. Erabiltzaileek segituan bereganatu dituzte gizarte-sare horiek, eta, ondorioz, orain arte argazkiak argitaratzeko aukera ematen zuten plataformek ere (Flickr-ek, adibidez) berriro egin dute beren web-orriaren diseinua, eta izaera bisualagoa eman diote.

Pinterest da gizarte-sarerik aipagarriena 2012. urtean, erruz zabaldu baita azken hilabeteetan. Zerbitzu hori 2010. urtean jarri zuten abian, eta oso jende gutxi erabili du oraintsu arte; ia zortzi urte bukaeratik aurrera, ordea, gero eta ezagunagoa bihurtu da eta gero eta bisita gehiago eduki ditu. Irudiak partekatzeko modu berri bat proposatzen du, irudiak argitaratuz eta horietan nabigatuz, eta hortxe dago, hain zuzen, arrakastaren gakoa. Hau da, edukien nabigazio bisualean aritzeko gizarte-sarea da.

Pinterest. Pinterest zerbitzuan, hainbat gaitan egin dezakete harpidetza erabiltzaileek, eta beste web-orri batzuetan aurkitu dituzten irudiak eta argazkiak igo ditzakete, ohar labur bat erantsita. Era horretan, sukaldako errezeten argazkiak antola ditzakete, edo arkitekterakoak, modari buruzkoak... Orrialde nagusia etengabe eguneratzen da erabiltzailearen solaskideek irudien bat igozten duten aldiro. Gainera, gizarte-sare honek aukera ematen du norberaren antzeko zaletasunak eta joerak dituzten erabiltzaileak aurkitzeko. Pinterest-en erabiltzaileek hainbat sail dituzte eskura, iragarki-taula batean bezala aurkeztuak, orriak berak ezarritako gaiekin, eta aukera ematen du norberak gai berriak gehitzeko, daudenak editatzeko edo ezabatzeke. Horma edo arbel horietako bakoitza eguneratu egin daiteke era guztietako irudiak erabiliz (erabiltzaileak berak egin dezake, edo nahi duten guztiei

eman diezaike hori egiteko aukera). Pinterest-era irudiak igozko lana errazteko, gizarte-sare honek botoiak eta zuzeneko sarbideak eskaintzen ditu nabigatzaileak erabiltzen zati, eta, horri esker, gizarte-sarean sartu beharrik gabe argitara daitezke irudiak.

Pinterest zerbitzuak ia hamabi milioi erabiltzaile izan zituen urtarilean (milioi batean zebilen 2011ko uztaillean). Erabiltzaile gehienak, % 80, emakumeak dira, eta horien artean, 25 eta 34 urte artekoak dira % 30. Pinterest-ek esku artean dauzkan erronken artean, egile-eskubideei buruzkoa dago, zeren erabiltzaile askok copyright-a daukaten argazkiak berrargitaratzen baitituzte, eta jokabide horrek zenbait egileren eskubideak urra ditzake. Hartu dituen neurrien artean, Pinterest-ek HTML kode bat erantsi du beren irudiak gizarte-sarean berrargitaratzerik nahi ez duten web-orrietan.

Beste aukera batzuk. Badira Pinterest-en antzeko gizarte-sare gehiago ere, eta **Clipboard** da horietako bat. Plataforma horretan, beste web-orrietako irudiak eta zatiak parteka daitezke, bai irudi eta bideo argitaratuak. Plataforma hori erabili daiteke web baten zatiak gorde eta historia bat erakitzeko; adibidez, oporleku bat bilatzeko edo sukaldako errezeta bat prestatzeko. Oraingoan, gonbidapen bidez soilik sar daitezke Clipboard zerbitzura. **20blinks** da beste aukera bat. Markagailu bisuala da, web batean ageri diren objektuak bilatzeko aukera

ematen duena: irudiak, bideoak, irudiak edo produktuak. Era horretan, erabiltzaileek bildumak egin ditzakete marka jakinetako produktuekin, filmekin, argazkiekin eta beste edozein gai edo zaletasunekin. Ingurune grafiko Pinterest-ek duenaren antzekoa da oso: bilduma bakoitza iragarki-taula edo arbel gisa aurkezten du horrek ere.

Jux plataforma ere Interneten aurkitutako irudiak, irudiak, bideoak edo produktuak partekatzeko erabiltzen da. Gordetako objektu digitalekin historiak edo albumak sor daitezke. Horretarako, ingurune grafiko oso bisuala dauka Jux-ek, eta aukera ematen du aurkezpenetan bezala nabigatzeko irudien gainetik.

Fancy-ren asmoa, berriz, irudiak partekatzea eta erabiltzaileen zaletasunen arabera biltzea da. Pinterest-en antzekoa da. Plataforma hau, dena den, moda munduari lotua dago, nagusiki, eta jendeak nahi litzuzkeen produktuen zerrendak ageri dira. Era horretan, jakin egin liteke zer-nolako produktuak gordetzen dituzten gehien erabiltzaileek, eta hortik abiatuta, gomendioak egin daitezke produktuak erosteko. Azken hori baino errazago erabiltzen da **FFFFOUND!** Interneten argitaratu diren irudi-markagailu gisa funtzionatzen du web-orri horrek. Irudiak beste erabiltzaileekin partekatzeko aukera ematen du, eta irudien gomendioak bilatzeko modua ere bai, argitaratuta dauden antzeko irudietatik abiatuta. //

